

Txanpa

Joxe Erzibengoa Otaegi

Euskara irakasteko metodogintzan eginiko bidea islatu nahi dugu hemen; euskararen irakaskuntzan ezer onik egin bada, besteak beste tresna hauei esker izan baita.

Orokortasunak

“Ekin eta jarrai” eslogana asmatu zuenak joankizunaren eta etorkizunaren makiltxo magikoa asmatu zuen, benetan. Edozeinen bistan dago euskararen alorrean jende asko eta ugari aritu dela eta ari dela, orain ere, zerbait argitu, zerbait jorratu, zerbait egin eta zerbait gehiago ere jarraitu nahian; aurrera ekin nahiz.

Euskaldunok euskara lantzen ari garenean, ez dakit oso ziur zeren antza hartzen dugun: itsasoko olatuena edo itsasoan mugitzen den txalupa txiki batena. Gauza bat dago garbi, ordea: ez gaudela hilik, mugitzen garela, alde batera eta bestera higitzen garela, zerbaiti eutsi nahi diogula..., sarritan zeri heltzen edo zeri deitzen diogun oso garbi ez badugu ere. Askotan badirudi ez dakigula ibaiko urak non isuri behar ditugun, ez dakigula non den erreka handi nahiz txikien urak bilduko dituen itsaso. Baina mugitu egiten garela ezin uka.

Borondatea ez zaigu falta euskararen soropil estu eta meharrean mugitzen ari garenoi; baina zer da, ordea, usu, atzera egiteko tentazioa sorre-razten diguna? Zeren ezin baita ukatu gogoak hoztu egiten direla zerbait egoera, zerbait iritzi, zerbait ikuskizun, zerbait teatro, zerbait jarri ikusi ezker. Bitoriano Gandiagak, “Denbora galdu alde” izeneko poema-liburuan, honako pasarte edo poema dakarkigu:

“Harantz eta honantz beti
ibiltari,
bidez bide baino, bidez kanpo
usnari,
gauza berrien bila edo
gauza zaharren ikuspegi berrien
bilaketari
ibili natzaizu abenturari.
Hauxe duzu nire “curriculum vitae”
edota nire bizitzaren nondik norako
guztiaren berri.

Inor askok aintzat hartzen ez duen
zenbait xehetasuntxo izan dut
neure jostagarri
eta lorkizun urri:
galdutako bide zahar bat,
zenbait trikuharri,
iturri goroldioz estali
ahantzi bat eta gizon-aztarna erdi
galdutakoen antsi,
ilusio edo neke basoetako isiltasunean
galduago baten dindirri
hunkigarri baten hitzerdi
erdi ulertezin eta misteriotan nahasi.

Zuhaitzek eta belarrek eta harriek eta
lurrak dakite nire begion
gutizia luze eta jakinnahi eta ikusgura
biziaren beroa
zenbateraino aritu den sumakari.”

Ibiltari, usnari, bilaketari eta abenturari bezalako hitzek edo, nahiago bada, adjetiboek oso agirian jartzen dute zer den usu ikusten dena euskara irakasteko bideak jorratzen ari garenon pataila zurian.

Ekin eta jarrai, ez dago beste irtenbiderik euskararen eta munduak duen hizkuntza zahar baten garapenaren hitzarmenezko txalupan igo garenontzat. Edo beste euskal idazle batek zioskun bezala: “Lepoan hartu eta segi aurrera”.

Beraz, gauzak hala, Txanpa gutiziaz, jakinminez eta ikusguraz biziaren beroa, euskararen geroa fabrikatu nahi duen abenturaria izan daiteke. Zenbateraino arituko den, zenbateraino iritsiko den, zenbateraino izerdituko den... azaltzen saiatuko natzaizue.

Txanpa izeneko ibiltariak badauka abantaila bat gutxienez: urte batzuk egin ditu hareatzan; borroka egin du elementuen aurka; badaki zer den hastapenetako bakardadea; ezagutu ditu anaiak; izan ditu ikusle, ikasle eta irakasleak; kritikatu izan da; gorai patua eta zendua; itsasoan in-txaur-azala bezala dantzatu eta astindua... Eta gorabehera guzti hauek eman dioten indar iraultzailea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Baina figurazio ororen gainetik, Txanpa asmoa ere bada; norako eza-guna duen egitasmoa; atzeman nahi den proiektua; har daitekeen bidea; ordain daitekeen txartela.

Gehiago esan daiteke oraindik, Euskal Herriko kirol simul bat erabiltzea zilegi bazait. Txanpa bost ziabogatara eratu den estropada da; bost luzetara antolatutako dema, non irabazlea ez den izango ez arraunlaria bera, ez erakundea, ezta ikuskizuna ere; irabazle bakarra gorderik doan mamia izango da, izkutuan ikasten den bidea, mihietan azalduko den hizkera: euskara bera.

Arantzazuko poetarekin batera amaitzeko, bere poema baten zatitxoa ekarriko dut gogora, nire hurrengo lerroetako gogoia oso ongi azpimarratzen duelako:

“Irteten utzi. Jarioari dariola utzi.
Asko ala gutxi, utzi. Datorrela utzi,
etorri datorrenari.”

Aurkezpena

Zer da?

Ikasgeletan erabiltzeko tresna: liburukia. Nahi baduzu, paperezko tresna, testu inprimatua. Irakasleek eta ikasleek eskuen artean erabiliko duten tresna molderraza. Batzuen eta besteen ekimenak bideratzeko untzia; gogo eta pretentsio baten jomuga ireki eta tolesgarria. Ez dago haserreturik bideo-zintarekin; ez du ordenagailurik errefusatzeko; ez ditu beste motatako gailu edo aparailuak ukatzen. Alderantziz, tresna baliagarri guzti horien meritua baieztatu arren, are gehiago, haien osagarri izan gabe, bere ideosinkrazia azaldu nahi du, hobekuntzaren abantailak finkatu, eta erabilkera zuzenaren txeketa sinatu. Txanpa, beraz, liburu-eskeman sartzen da, euskara irakasteko sistematizazio berezi batean, alegia.

Zertarako da?

Zeharka esana baldin badago ere, zehazkiago esanda, azpimarratu behar da Txanpa behar bati, eskakizun zehatz bati, berreskapen orokor bati erantzun asmoz jaio dela. Orduan, zein izan da eskakizun hori? Urte batzuk atzeragoko lanari begiratzen badiogu, Euskara Mailakaren izenarekin eratutako sistemari ukitu bat eman behar zitzaion; aurrera begiratuta, berriz, urrats berriak eman behar zirela ohartu ginen, aldi berriari arrapostu berriak eskainiz. Beraz, euskarak indizio berria behar zuen, zalu eta sotil irauteko; eta, aldi berean, ilusio eta kuraia sorrerazi beharko zuen aurrerantzean. Horretarako tresna, euskara liburukia, Txanpa, itxura erakargarriaz azaldu behar zen.

Honi Txanpak irakaskuntzaren erreformari erantzun behar ziola erantsen badiogu, gauza interesgarria izanik ere, bigarren mailako aspektua ukitzea litzateke. Egia da, oraindik orain, liburu honek Eusko Jaurlaritzaren onspena jaso du, horrelako esaldiek konfiantza eta nolabaiteko mirespena sorrerazten dutela egia da. Eta, beharbada, hala izan beharko du, edozein trapu zahar soineko bitxi ordez sar ez diezaguten. Ulertzekoa da.

Azkenik, esperantzari leiho bat zabaldu omen diote, abeslariak zioen bezala; nik ere bai errepikatuko nuke hemen. Hauxe izango zen, laburbilduz, Txanparen xede, jomuga eta helburu marraztu gabea, baina, sakonean, esango dudanaren azpi-azpian egongo litzatekeena: era batean edo bestean erabiliko dutenei esperantzaren leihoa ireki eta haize freskoa eskaintzea.

Atalak

Txanpa liburukia den aldetik eta liburuki lez aztertzen dugun neurrian, sistema batek osatzen du, egitura batek, elementuen sailkapenak, etab.

Orobat hartuta, Txanpak atal *iraunkorrek* ditu, baina aldi berean *aldakorrek*. Atal iraunkorrek korpua ematen diote liburuari; atal aldakorrek, aldiz, korpua arintasunez mugitzeko isurkia, bizi eta mugieraziko dion gurpil-ardatza.

Lehenengo atalean, iraunkorrean, hasierako testu bat, aditza, deklinabideari dagokion kasuren bat, perpausak, lexikoak eta irakurtzeko nahiz hitz egiteko testu luzeagoa sartuko lirатеke.

Bigarren atalean, aldakorrean, tokian-tokikoak kokatzen direla kontutan izanik, noski, gure literatura, idazketa, sortzaile izeneko atala, proiektua, testu-komentaketa, funtzioa, solasean, konposaketa, etab. izango genituzke.

Honez gainera, badira lehenengo atalean eta bigarreanean, salbuespenik gabe, sartzen diren elementu osagarri eta gehigarriak: eskemak, marrazkiak, argazkiak, jolasak, koloreak, tipografia, etab. Ezin da esan, gainera, azken elementu hauek axalekoak direnik, baina bai, ordea, Txanparen izakera osatzeko nahitaezkoak direla, batipat, korpusaren soinekoa aukeratzeko orduan eta soineko horri salgai-txartela jartzeko orduan.

Oinarriak

Liburua korpua denez, korpus orokorra, hor zati bakoitzak bere funtzioa bete behar du; baina, zenbait alorretan gertatzen den bezala, beti daude korpusaren funtzionamendu egokia lortzeko gehiago edo gutxiago mainatzen diren atalak.

Txanpak elementu garrantzizko honi *funtzioa* izena ezarri dio. Ikastunitatearen gunea da; honen inguruan ibili dabilta ondorengo elementuak. Funtzioak du lotura berezia euskarak mugitu behar duen esparruarekin. Funtzioaren hautaketa lan berezia da eta ahalegin ezohia eskatzen du. Honek, ordea, espresabide batzuk ditu, adar-multzoak, funtzioari azalpena eta konkrezioak emango dizkietenak: *topikoak* dira.

Argiago izateko. Demagun delako funtzioa “Itsasoa” dela. Honi dagokion topikoak honako hauek izango lirатеke: Euskaldunak Terranoban. Estropadak. Itsasuntziak. Urpekariak. Piratak. Mareak. Baleak, etab. Beraz, itsasoarekin zerikusia duten elementuak dituzu.

Honek ez du derrigorrez esan nahi, jakina, topiko guztiak ikastunitate baten barruan ukituko direnik. Batzuk, bai. Batzuk aztertuak izango dira eta besteak, ad libitum, nahi den bezala, ukituak ala ez.

Bada Txanpa izeneko tresna honetan beste oinarrizko pieza: *euskal idazleak*.

Hizkuntza eta literatura, literatura eta hizkuntza, ama bera baten semeak direla dirudi. Lan berri honetan, biak batera hartu eta euskal plazara eramantitugu.

Zalantzarik ez dago, literatura arte-lana baldin bada, arte horren erraminta hizkuntza da. Lana estetikoa izango bada, erraminta, hizkuntza,

itxurosoa izango da; baina ez bada, nekez lor daiteke literatur artea dei genezakeen obra. Ordea, alderantziz ere gertatzen da. Euskal idazleak hartu beharrean gaude sarri askotan, hizkuntzaren nondik-norakoak jakiteko; zein esparrutatik ibili behar den atzemateko; hitzak, esaldiak, esamoldeak, lexikoak eta esakune askok eta askok dituzten musikalitate, ozentasun, ahoskera, erritmo, etab. hartzeko.

Izan ere, Txanpa 6, 7, 8, 9 eta 10ean, euskal idazleen ikuspegi orokor samarra ematen saiatu gara, oso laburki izan bada ere. Hau batetik. Bestetik, beste ariketa-motak osatu ditugu, idazle batzuen testu-puskak hartu eta ikasleen kontsideraziora ekarriz.

Goiko pasarteetan esandakoa esanda egon arren, gure idazleak plazaratzerakoan berauen testuek izan zezaketen eragin literario eta artistikoa izan ditugu gogoan. Era horretan, hizkuntzari balore erantsia emateaz gain, literaturtzaletasuna bera bultzatu nahi izan dugu.

Xedeak Zeharka-meharka, era batean edo bestean, esana bada ere, ez zait gehiegizkoa iruditzen, laburki bada ere, Txanpak lortu nahi duena, xedeak alegia, aipatzea.

• *Euskara irakastea*

Posible al da euskara irakastea? Hau behin baino gehiagotan egin daitekeen galdera da. Eskola al da leku aproposa euskara irakasteko? Geletan dagoen giroak laguntzen al du? Irakaskuntza kolektibo, kolektiboegi, honek nola laguntzen du edo nola ez du laguntzen euskara irakasten? Bestalde, eskolan irakasteak balio badu, zertarako irakatsi irakatsitakoak hain gutxirako balio badu?

Zer esan eta nola adierazi ikasle bati euskarak, ikasten ari den euskarak, bigarren hizkuntzak alegia, gero izango duela aplikazio eragilerik?

Hala eta guztiz ere, zalantza eta oztopo guztien gainetik, ekin eta jarrai; lepoan hartu eta segi aurrera; ibiltari, abenturari, bilaketari..., gure idazle eta poetek erakutsi ziguten bezala. Bai, eskolak diosku badela ahalbidetik euskara espazio horretan ikasteko, mundu berri batera azaltzeko, Herri honen kulturaren jauregira bide onetik igotzeko.

Horregatik, beraz, euskara irakastea xedea da, zilegizko utopia.

• *Euskararen erabilera erraztea*

Eskola edo eskolako gela bat hainbeste baldintzapenez beteta dagoenean, eta ia denak itxura ez onekoak direlarik euskara erabiltzeko, gure xedeetako bat euskararen erabilera dela esateak azalpen bat, gutxienez, eskatzen du.

Erabilerari buruz ari garenean liburuari gagozkio. Oso zaila da esatea non dagoen muga egiturak ikastea eta euskara erabiltze-prozesuaren artean. Norbaitek esan lezake bien arteko oreka lortu behar dela; ezin dela erabili egitura batzuk menderatzen ez badira; eta ezin direla egiturak

ikasi, gero erabiltzeko balio ez badute. Eta egia da. Oreaka lortu behar da; are gehiago, oreaka hautsi beharko balitz, euskararen erabileraren alde hautsi beharko litzateke.

Nire ustez, Txanpa oreaka hausten saiatu da; euskararen erabileraren alde apostua egin du. Jakina, hurrenez hurren datorren galdera beste hau da: Zertaz hitz egin? Euskara erabili bai, baina zer esateko?

Zeri buruz hitz egiteko? Eta egia da ezin dela hizkera gozoa eskatu, hizpiderako gairik ez badago; hizpiderako gai egokirik ez badago; solasaldirako ilusioa biztuko duen gairik ez badago. Hau izan da, era bereziz, Txanpak landu nahi izan duena.

• *Inguruarekiko harremana*

Euskara irakasten dugunok ezin dugu iparra galdu; ezin da norakoa ahantzi. Euskara jalgi hadi plazara! esaten dugu poetarekin batera.

Gaur egun eskolan euskara irakasteak duen arrazoia, hain zuzen ere, inguruak ematen dion edo eman diezaiokeen eszenatokiagatik da. Leku edo toki zehatzak, pertsona ezagunak, egoera bereziak, portaera jakinak, etab. ebatsi behar dira euskararentzat. Honela ikasleek ikusiko dute zein den ikasten ari direnaren geroa, perspektiba.

Txanpak animaliak, itsasoa, gorputza, garraioa, denbora, gerra, mundua, jakiak, espazioa, kirolak, hiria eta jaiak bezalako gaiak jaso eta ukituz, ikaslearen espazioarekiko hurbilketa lortzen duela uste dugu.

Bada, honez gainera, hurbilketa-mota osagarria edo, nahi bada, parez parez doana, edo joan beharko lukeena, hots, euskal esparru zehatz eta ezagunetara ikasleak ateratzea eskaintzen duena: kalera, tabernara, mendira, txangora, kanpaldira, barnetegira, familietara, zinemara, prentsara, etab., hitz batean esateko, euskara gizarteratua dagoen belardi lau edo malkartsuetara.

Bibliografia

Txanparen traineruan bibliografiak atal bat hartzen duela esatea, hain zuzen, estropada honetan bakarrik ez goazela esatea bezalaxe da. Honek zer esan nahi duen? Txanpa, asmoa, sortze-ideiarekin batera, begiak erne eta atea irekita izan genituela, Euskal Herrian zehar korritzen zuten haizeak, haize metodologikoak, batipat, gure bidaide izan zitezten.

Nork ez du enpresa batean kontseilarien beharra ongi ikusiko, enpresa horren arrakasta jokoan dagoenean, edota geroak gizon jakintsu edo trebatu horien esku ekimenak uzten dituenen? Enpresa horren arrakasta denen eskuetan egongo dela baieztatu arren, iparra norbaitek azpimarratu behar du. Eta elementu horiek adituak dira.

Txanpak, beraz, aditu asko izan ditu bidean. Adituak izan ditu egitasmoa burutzerakoan: Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia, Txillardegi, Xabier Amuriza, Euskal gramatika praktikoa, Euskalduntzen, Jalgi Hadi, Euskara Mailaka, Euskara hire laguna, etab. Ariketa-motak osatzerakoan, berriz: HABEk argitaratutako zenbait lan (eztabaida erabil-

garia, hizkuntz irakaskuntzarako teknika praktikoak, hiztegia lantzen, hizkuntz ikasleen erroreak) eta *Progress English*, Oxford University Press-ek argitaratua.

Hirugarren nibel batean, nolabait esateko, argitaletxeak izan dira Txanparen ikuspegi orokorra osatzen lagundu digutenak: Mensajero, Elkar, Bruño, Erein, Pamiela. Gizartearekiko harremana aurrean edukiarazi digutenak egunkariak, egunkari batzuk, izan dira: Egin eta Deia. (Txanpa jaio zenean kaleratu gabea zen “Egunkaria”.) Egunkariokin batera bi aste-kari izan genituen aldamenen: Hemen eta Eguna.

Bibliografiaren alorrean, beste atal bat, atal garrantzizkoa, gainera, ilustrazioarena izan da, eta honetarako ere laguntza ezin hobea eskaini digute honako aldizkari, errebista, edo... dena delako guztiak: *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Educación hoy*, *Línea directa*, *Nahaste-borraste*, *Enbido*, *Pyrenaica*, *Habe*, *Aizu*, *Elhuyar*, *Argia* eta *National Geographic Magazine*.

Baina, hemen esandakoak esan ondoren, ez ginatke oso zuzen ibiliko, beste ondorengo hau aipatuko ez bagenu, hots, idazleak erabiltzeko eta aztertzeko eskukatu ditugun liburuak. Bestaldetik, den-denak aipatzea zerrenda aspergarri bat osatzea litzatekeela iruditzen zait. Idazle eta berauen obrak Txanpa 6, 7, 8, 9 eta 10ean, bakoitzean, baitoaz, hemen batzuk baino ez ditut aurreratuko: *Obabakoak*, *Narrazioak*, *Babilonia*, *Charles Moulay*, *Muskilak*, *Egunero hasten delako*, *Tabacco days*, *Hirugarren gizona*, *Hil ala bizi*, *Uda baten amodio zoroa*, *Linkon*.

Atal honi buruz gauzatxo bat baino ez zaigu geratzen esateko, alegia, ur garbi hauetan egindako zibogek ez dutela aitzakiarik izan behar arraunketak erritmo indartsuan emateko, eta estropadak ezin duela huts egin helmugara iristeko orduan.

Beraz, bukatzeko, Txanparen aita-amak zeintzuk diren esaten hasi beharko bagenu, inoren izenik aipatu gabe, gure Herrian lan eskerga egiten duten asko eta askorena dela esan beharko genuke, nahiz eta airtortu behar den lema eramatea guok, SEIE-kook, geurekin astintzea deliberatu dugun.

Ondorioak • *Ez gara bakarrik lan honetan*

Guk ezin dugu esan poetak esan zuena: “Sortu, lurretik sortu nintzen, aitarik gabe, amarik gabe, ni neu bakarrik izateko” (Joseba Sarrionandia. “Hezurrezko xirulak”, 103. or.). Ez gara euskal mundura plazaratu bakarrik izateko, alderantziz baizik: zenbat eta lagun gehiago izanik, orduan eta babestuago sentitzeko, itsaso beretsuan nabigatzeko.

Hasiera batean, euskal metodologiak sortu zirenean edo, hobeki esanda, euskal metodoari merkatuko ateak zabaldu zitzaizkion une hartan, bata bestearekiko errezeloak zeuden zoko-moko askotan, gauza eta lan bera egiten ari ginela konturatu gabe; eta eztabaida nahiko “primitiboak” sortzen ziren euskara irakasteko nondik hasi, zer egin, zeri garrantzia eman, etab. deliberatzen zenean.

Gaur egun, elkarren arteko lana ezinbestekoa da. Gaur, norik egiten duen baino, zer egiten den aztertu eta sakondu behar da, hedabanatze-lana ekiditeko, hau argialetxe batzuen aurka badao ere.

• *Irakaskuntza erronka da geroari begira*

Txanpa, besteak beste, erronka da, geroari egin nahi dion erronka serioa; irakaskuntzari hurbiletik lotzen zaion aupada eta desafioa.

“Hemen dago, iritsi da, etorri zaigu neguko ilargia ta altza da lotsa-gabeki zeru ertzeraino bere harrokeria. Luze begiak, zabalik ahoa farrea dario ta lur lotiari bota dio negurako erronka”. (Patxi Ezkiaga. “Keiko eta beste udazkenak”, 144. or.)

Eskolan euskara irakasterik badagoela sinestea, noski, euskara badela zerbait gerorako sinestea bezalaxe da. Urak ez datoz oso argi, baina erreketako bazterretan herri langile ugari ikusten dira garbiketa-lanetan. Eta hau ikusten den neurrian, badago motiborik “ekin eta jarrai” eta “lepoan hartu eta segi aurrera” egiteko.

Dena den, euskara gure hizkuntza izateaz gainera, munduko ondasuna ere bada; eta honek lanerako beste zio justifikagarriagoa eman beharko liguke, ahal balitz, indar biziagoz iharduteko.

“Eman ta zabal zazu munduan frutua...” mezua ez dago agorturik, bizi-rik dirau.

Oztopoak oztopo, nekeak neke, zalantzak zalantza, egokia deritzot Bernardo Atxagak esandakoari: “Ilun, ez da dena ilun, begira ezazu leiho-tik, ikustazu baso hori, berdatzen”. (Bernardo Atxaga. “Poemas Híbridos”, 72 or.)

• *Kate bat gara eta hitzarmenduak gaude*

Gaur egun gauza gehienei buruz predikatzen den pragmatismoaren gaitetik, beste zerbait ere iragarri beharko zen, hau ere bizitzarekin loturik doana eta gureganaino honelaxe heldu zaiguna: kultura unibertsala eta, beraz, euskal kultura ere bai. Ez da guregana iritsi ekintza aparta eta solte bezala, sarri askotan horrekin antz handia baldin badu ere, baina bai katea bat bezala, eraztunez osatutako katea bezala.

Katea hori ez haustea ezezik, katea horri luzatzeko aukera ematea ere bada gure zeregina, euskara irakasteko metodologian murgildu garenon zeregina bederen, eta badugu erantzukizun-maila gutxienekoa, euskararen lantze-prozesuan hizkuntzak porrot egin ez dezan.

Dena edo ia dena zalantzan jartzen den une honetan, ez dakit gehiegizkoa ez ote den esatea konpromezua daukagula, maila edo neurri bateko hitzarmena geure lanarekin, beste inork hartuko ez duen hitz-mate zehatza gainera.

Zilegi bekit Gabriel Arestiren poema-zati bat hemen aipatzea, goiko pasartean esandakoa indartzeko: “Beti esanen dut egia. Nire ahotik ezta hitzik aterako, egia eztena. Ezpainak apurtuko zaizkit, hortzak eroriko

zaizkit, mihia ebakiko didate, baina nik eztut gezurrik esanen. Eta inoiz, nire juramentua hautsirik, gezur bat badiot, izanen da eguzkia ilundu ez-tadin, arrosak orriren bat irabaz dezan, krabelinak usainik gal eztezan, haurra beti ditiaz goza dadin, edo dontzeilari birkindadea joan dakion nobleziaz”. (Gabriel Aresti. “Harri eta Herri”, 50 or.)